

KOSTUEN EGITURA

Gure gimnasioaren negozio-eredua martxan jartzeko hainbat kostu izan behar ditugu kontuan, batez ere **kostu finkoak eta kostu aldakorrak** bereiztuz. **Kostu finkoak** dira bezero kopurua edo ekoizpena edozein dela ere ordaindu behar diren gastuak. Kasu honetan, **garrantzitsuena lokalaren alokairua da**. Gimnasioak **205 m²-ko azalera** izango du, **metro karratu bakoitzak 2.146 euroko kostua** duelarik, eta **guztira 440.000 euroko gastua** suposatzen du.

Beste **kostu finko garrantzitsu** bat **makineriaren erosketa** da, hala nola **kardio makinak, pisuak eta muskulazio makinak**, hasieran **inbertsio handia** eskatzen dutenak. Horrez gain, **software baten garapena** beharrezkoa izango da, erabiltzaileek sarreran eta makinetan euren kontua, helburuak eta progresua ikusi ahal izateko.

Langileei dagokienez, mantentze-teknikari baten soldata, entrenatzaileena eta garbitzailearen soldata ordaindu beharko dira; azken honek **1.300 euro kobratzen ditu hilean**. Gainera, aktibitatea garatu ahal izateko **lizentzia bat** behar da, **1.275 eurokoa**. **Aseguruei dagokienez, erantzukizun zibileko aseguruia (35 euro urtean), multiriesgo aseguruia (246 euro urtean) eta ekipo espezifikorako aseguruia (300 euro urtean)** ordaindu beharko dira.

Bestalde, **kostu aldakorrak** bezero kopuruaren arabera aldatzen dira. Gure kasuan, **kostu aldakor nagusia makinaren mantentzea da**. **Zenbat eta bezero gehiago egon**, makinak gehiago erabiliko dira eta azkarrago hondatuko dira. Horregatik, **mantentze-kostua hilean 100 eta 400 euro artekoa** izango dela aurreikusten da. Ondorioz, **hasieran kostu finko handiak** izan arren, **bezero gehiago lortzen badira**, gimnasioak **errentagarriagoa izateko aukera** izango du. Eskuohialak ere kostu aldakorrak izango dira.

Energia-gastuei dagokienez, argiak urtean 20.000 euroko kostua izango du, **urak 7.000 eurokoa**, eta **aire girotuaren gastua** nahiko konstantea izango da urte osoan zehar. Bestalde, ura ordainduko dugu berogailurako eta dutexetarako. Hauek erabileraren arabera aldatuko dira.

